

IIKIMZEN PLAGINTZEN KLASIFIKAPENERAKO ALEGIN BAT • ~

CHAIM RABIN, HEBREGEH UNIBERSITATEA,
JERUSALEM

Linguistikatik kanpora dagozan plangintzak

Batak besteagaz leiatzen daben izkuntza batzuentzat dira plangintza oneik, edo izkuntza baten erabilkerari buruz.

A) Zearreko Plangintza edo horizontala

Aldaketa, izkuntza erabiltzerakoari, lurraldean egitei da

1. Geografi mailako aldaketa (aldaketa aberri baten barruan edo probintzi baten barruan, tabar...).
2. Erri barruko aldaketa (izkuntza bateko biztanleak beste izkuntzadunekaz nastatuta ipini).

B) Plangintza zutak edo goitik berakoak

Aldaketa egiten da gizarte batek izkuntzari emoten deutzan erabilkeran.

1. Goragoko eta beragoko gizarte klase biren artean aldaketa.
2. Uritar eta baserritarren artean izkuntza aldaketa, auzotuta dagozanen eta erri gabe diranen artean.

3. Izkuntzaren erabilkera berezi batzuetan (esate baterako izkuntza literarioa berba egiteko erabili, edo erlijio gaietako izkuntza izkuntza jatortzat erabili).

D) Plangintza diakronikoa

Plangintza au bere sarritan radikala izaten da.

1. Izkuntza ila biztuteko.
2. Izkuntza idatzia berbetan egiteko erabiltzen da, eta agozkoa idazteko (ikusi goian B3).
3. Izkuntza moltso barri bat sortzen da.
4. Dagon izkuntza bat il edo ilten itxi.

Linguistikatik kanpoko plangintza oneik soziolari eta politika zientzietan aituei lotuta agertuko leitikez geien baten. Argitaratutako lanak, ikusten dituez plangintza oneik eredu tipikoak lez.

Olako plangintza, sarritan, izkuntza bat jente askori erakutsi bearragaz alkartuta egoten da. Orregatik plangintza onek bere menpean izaten dau izkuntza plangintzaren bat.

Argi eta garbi agertzen da, azterketa on bat bear dala, aitatu ditugun plangintza motak, linguistikatik kanpora dagozanak, eta metodoei eta elburuei buruzko erabakiak, noraino kutsatzen daben izkuntza bakotxa.

Plangintza erdi linguistlkoak

A) Idazkera

- i. Idazkera aldatu (esate baterako logogrifo dan idazkeratik alfabetikora aldatu, bokalen idazkera diakritikotik, idazkera alfabetikora).
2. Aldatu idazkera sistemaren bereizkuntza batzuk (esate baterako maiuskulak sartu, grafia bakarrak digrafien orde; kendu idazkera bereziak asieran eta amaieran; kendu marratxoak berba bitartean, Etio pian lez).
3. Izkien edo letren aldaketa (esate baterako idazkera

zirilikotik, latinezko izkietara Yugoelabian lez; idazkera gotikotik latinaren izkietara, alemanarentzat; idazkera bereizkuntzak obetu).

4. Idazkera inguruko gauza batzuk aldatu (esate baterako geldiuneak adierazteko, ikurrak transliterasino ereduak).

B) Letraka irakurtzeko

1. Sistematzatu eta batu forma ezbardinak.
2. Erreztu.
3. Fonemizatu (batez bere letraz irakurtze ori etimologikoa danean).
4. Berba bakotxean munarri diran letrak aldatu (esate baterako, banandu preposisino, mugatzaile eta antzeko formak izenarengandik, sandhi letraka irakurri ez).

C) Itzak ebagitzea

Fonema bakotxagaz edo fonema banaketagaz zerikusirik ez deukien alofonoak batu, erri aide ezbardinetakoak edo sozial klase ezbardinetakoak izan arren.

D) Izkerarentzat mugak

1. Gizabidezko forma batzuk erabili (esate baterako Suezian kanpaina bat egin zuten *tu* izenordea erabiltzeko, beste zearkako forma finago batzuk itxita).
2. Izkuntzaren barruan tabu deritxoena erabili.

Erdi linguistiko diran plangintzak izaten dira, sarrien erabiltzen diranak, izkuntzaren aldaketa planifikatu bat lortzeko. Baina oso zaila da zein gairen barruan sartzen dan olako ikerketa bat erabakitzea.

Antza danez, plangintza oneitan sozial mailako eta siko-logi mailako indarrak badagoz egon, batez bere izkuntzalariak ikerketa lanak egin arren. Olako egoera bereziak gaitasun berezi bat eskatuko leuke berez.

Plangintza oneik arazo bat daukie: maileguz artzen diran

berbak itz barriak sortzeko, iztegia aberasteko eta beste izkuntza barruko eta izkuntza arteko garbizalekeri forma batzuetarako, sartu bear litzakez bide onetan, bai ala ez? Ikusi oni buruz, A3 berago.

Linguistikaren barruan dagozan plangintzak.

A) Iztegia

1. Iztegia aberastu
 - a) Erabaki sistematiakoak artu bearra (sortzaile diran joerak artu).
 - b) Plangintza praktikoa (informasinoa daukien itzak artu).
2. Iztegia estandar biurtu
 - a) Iztegi teknikoak.
 - b) Iztegi ez teknikoak (itz barriak eta itz zarrak).
 - c) Iztegi dialektalak.
3. Soziosemantika iztegia geitzeko iturriei buruz erabakiak.
 - a) Atzerriko iztegiak iturritzat artzetik, izkuntza bagoitzeko iztegi jatorra artzera aldatu.
 - b) Ornidutako itzak edo maileguz artutako itzak berbetaren beraren forma zarretatik artu.
 - c) Ornidutako itzak dialektoetatik artu.
 - d) Erakartze loturekaz alkatuta dagozan izkuntza biren artean, batak bestearengandik iztegia egokitu.
 - e) Iztegi arrunta eta zatarra sartzeko almena.

B) Egiturak

1. Fonologia.
2. Morfologia (alan da guztiz bere ikusi goian A1).
3. Joskera.

C) Estiloa

1. Oiturazko estilotik europatar estilo baterantza jo.

(Kontuan artuta zein arlotan erabiltzen dan berbeta bakotxa).

1. Estilo zailetik, estilo errez eta argirantza jo.
3. Zelan irakurri daiteke Erri bakotxeko literaturarik onena (adibidez Biblia, Ramayana, Homero, Chaucer): bere jatorrizko forman, idazkera modernoagaz ala itzulita?

Arlo au linguista normagilearen eskuetan gelditzen da, idazleekaz batera lan eginda. Izkuntzen plangintzan azterketak azalduko geunskigu zeintsuk diran linguista normagile batek bear dituen gaitasunak, eta zeintsuk bear dituen linguista deskribatzaile batek.

PvABIN irakaslearen lana itzuli ondoren gauza batzuk jator-taz burura:

1. Edozein berbetaren egoeraren diagnostiko zeatza egin bear da. Gane ganetik begiratuta Euskeraren barman, euskalkiak dagoz bizirik. Euskalkiak aldaketa maila ezbardinetan dagoz. Maila ezbardinetan dagozan euskalkiak batzea besterik barik, lortu ezin daiteken gauza iruditzen jat.
2. Izkuntza edo berbeta alderdi bitik aztertzen dabe gaur aitua: izkuntza idatzia eta agozko izkuntza. Nik gai onei buruz asko ez dot ezagutzen baina agozko euskera ez dago aztertuta esate baterako, erdaldunak erdera azertu daben mailan edo frantsesak frantsesa azertu daben mailan. Nire iritxiz euskerak bearrezkoak ditu azterketa metodo barri eta zorrotz orreik. Eta erderak eta frantsesak baino geiago, izkuntza txikiago dalako eta egoera larriagoan dagolako.
3. Euskera elebidun giro baten barman dago. Orduan elebidun girorako erabiltzen diran metodo eta bideak bearrezkoak ditu euskerak bere normalizapenera irixteko. Euskal itz eta joskeraren normalizapena eta euskeraren erabilkeraren normalizapena.
4. Ori dana apurka apurka sartu bear da lege egokiak

jarrita euskerari indarra emoteko. Baina ori ez da naikoa.

Eskola, irakasle eta material egokiak bear dira euskera irakasteko eta euskera benetan irakaskintzan sartzeko.

Zerbitzu publikoetan euskeraren erabilkera normalizatu bear da. Enpresa pribatuetan zelan normalizatu euskera? Beste batzuk, bide batzuk zabaldu dituzte eta ondorio onakaz. Badaukagu non ikasi eta zer ikasi, nire iritxiz beintzat.

5. Au dana zenbat kostako dan neurtu daiteke gitxi gorabera. Eta gora bera ori ez da andia izango. Baina benetan itaun bat egin gura dot dausat neure buruari: egia ete da euskera gauza inportantetzat jotzen dogula danok Euskalerrian? Gauza bat biotzeko bajaku bideak ipintzen ditugu ori lortzeko. Esate baterako Real zaleak 363 miloi emongo dabez bederatzj ilabetetan barriro Liga irabazi dagian. Eta Atleti zaleak 395 miloi emongo dabez denpora bardinean euren ekipoa ordaintzeko. Euskera aztertzeko orren erdirik egongo da? Eusko Jaurlaritzak zeozer egiten dau eta Diputasinoek bere bai. Laguntza emoten dabe kultura ekintzetarako. Monumentuak gordetzeko, esate baterako. Eta ondo emona. Baina Diputasino bakotxak badauka monumentu bizi bat bere lurraldeetan, bertan erabiltzen dan euskalkia. Monumentu ori gorde, zaindu ta indartzeko zenbateko laguntza emoten dau? Edo euskalkiak ez badira monumentu gordegarriak komeni jaku jakitea, alperrik denpora eta burua ez galtzeko.

Onek erantzun egokirik badauka, ni posik artzeko.

Jose Mari Etxebarria